

MARKINA-XEMEIN / Berba idatziak izeneko programa kulturala ekimenez beteta dator aurten ere

Guraso Elkarteak, Artibai Mendigoizale Taldeak, Arte Eskolak, Uhagon Kultur Elkarteak eta Herri Bibliotekak elkarlanean Berba idatziak izeneko ekitaldi programa prestatu dute. Ekitaldiak bihar hasiko dira, eta maiatzaren 1ean amaitu.

Aurtengo programa hiru bloketan banatuko da. Lehenengo blokea Korrikagaz lotuta dago. Horrela, Korrika Kulturalaren barruan, Gu ta gutarrak, Igor Elortza eta Unai Iturriagaren proiektu berria egongo da Uhagonen. Gainera, domekan, Korrika egunean bertan, eskualdeko emakumeen liburuak pasako dira testiguagaz batera, eta banatu ere egingo dituzte.

Bigarren blokea literaturagaz lotuta dago. Iaz Euskadi saria jaso zuen Iban Zaldia idazlea gonbidatuta dator Herri Bibliotekara, eta beragaz solasaldian jarduteko aukera egongo da. Bestalde, poesia eta antzerki egunak ospatuko dira, eta jarduera bakoitzeko liburuak banatuko dira. Azkenik, Liburuaren Egunean Peru Abarka II. Lehiaketako saridunen aurkezpena egingo da egile eta ilustratzaileekin batera.

Horretaz guztiagaz gainera, urtero moduan, Andersenren liburu bat landuko da Ume eta Gazte Literatura Egunari begira. Oraingoan, Erregearen traje berria liburu hartuko dute esku artean: liburu egingo da denen artean, eta erregeari traje berria ere egingo zaio.

Nagusiak ere kontuan

Umeez gain, nagusiak ere kontuan hartzen dira programan, eta haiei zuzenduta Frantzia eta Belgikatik etorritako ipuin kontalarien emankizuna dago. Bestalde, musikak ere izango du bere tarte, eta Eleanor McEvoy gidari dela, pop-folk irlandar doinuak izango dira entzungai Uhagonen. Hirugarren Blokea 36ko gudari zuzenduta dago. Frankistak herrian sartu zirenetik 30 urte betetzen dira, eta, beraz, horri lotuak egongo dira ekitaldi batzuk. Alde batetik, Ezkaba, La gran fuga de las cárceles franquistas dokumentala emango da. Nahiz eta ihesaldian parte hartu ez, Iruñeako kartzela horretan markinar batzuk egon zirela-eta aukeratu dute. Bigarren dokumental bat ere emango da, Mujeres del 36 izeneko, gerra hartan emakumeek izan zuten papera ikusteko. Azkenik, eta Berba Idatziak programari amaiera emateko, maiatzaren 1ean mendi irteera egingo da frontea egon zen lekuetatik. Ibilaldi lasaia izango da, eta azalpenak emango dituzte.

Aste honetan hiru ekimen daude. Biharko Poesia Egunagaz hasiko dituzte ekitaldiak, eta beste biak Korrikagaz lotuta datoz. Astero izango da ekintzaren bat. Alboko egitarauan irakur daitezke zeintzuk.

EGITARAUA

Martxoa

- 21, eguaztena. Poesia Eguna.
- 23, barikua. 22:30ean Uhagonen Gu eta gutarrak.
- 25. domeka. Korrika. Eskualdeko emakume idazleen liburuen banaketa.
- 27. martitzena. Antzerki Eguna.
- 28. eguaztena. Erregearen traje berria liburua egingo da.
- 30. barikua. 20:30ean Uhagonen argazki erakusketa inaugurazioa.
- 31. zapatua. 18:00 herri bibliotekan Irakurleen Txokoa Iban Zalduagaz.

Apirila

- 1, domeka. Umeentzako zinea 17:00etan kultur Aretoan.
- 2, astelehena. 12:00etan Herri Bibliotekan Ume eta gazte literatura eguna. 16:00etan erregeari traje berria egingo zaio.
- 4, eguaztena. 19:30ean Xemeingo elizan Euskadiko Kontserbatorioen orkestrak.
- 14, zapatua. 22:30ean Uhagonen Eleanor McEvoy.
- 20, barikua. 22:30ean Munduko Kontu kontalariak.
- 21, zapatua. 12:00etan Otsoen kontuak bibliotekan.
- 23, astelehena. 19:00etan udaletxean Peru Abarkako saridunen aurkezpena.
- 26, eguena. 18:30ean Herri Bibliotekan Irakurleen txokoa Ana Urkizagaz.
- 27, barikua 27. 22:00etan Uhagonen Ezkaba, la gran fuga de las cárceles franquistas dokumentala.
- 28, zapatua. 22:30ean frontoi nagusian Lapur zuloa antzezlan.
- 29, domeka. 19:00etan Uhagonen Mujeres del 36 dokumentala.

Maiatza

- 1, martitzena. 09:00etan ibilaldia gerra zibileko frentea egon zen lekuetatik.